# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia — Iruñean, 1997ko urriaren 31 — 70 ZK.


### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**


—"Irakasleen prestakuntza-jarduketak" izeneko 13340-0 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—"Guraso eta ikasleen elkarte eta federazioendako eta eskola kontseiluetan partehartzea sustatzeko dirulaguntza" izeneko 13100-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Helduak euskalduntzeko dirulaguntza-modulua gehitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxearen egungo egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Ezkaba (San Cristobal) mendiaren egoerari eta aipatu mendian eta haren inguruan egin daitezkeen jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—"Eraikin historikoak bereoneratu eta babestea" izeneko 90065-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Itoizko urtegiko ur baliabideak neurri batean beste komunitate batzuetara eramateko Ebroko Ur Konfederazioarekiko akordioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Herri ekimenez sortutako zentroetan inbertsioak egiteko laguntzari buruzko hogeita zazpigarren xedapen gehigarriari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Institutos Técnicos y de Gestión direlakoen merkataritza-jarduerei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Erriberako hainbat herri gasez hornitzeko "Gas Navarra"rekin izenpeturiko hitzarmenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

—Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuen kontratazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Burson-Marsteller komunikazio-enpresari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Lurzoru, etxebizitza eta birgaitzeari buruzko aurrekontu-kontusailen 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

—“Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak” deituriko 11000-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
—“Ingurugiro hezkuntzarako programetarako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten beste jardueretarako dirulaguntzak” izeneko 11090-7 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—“Naturguneak babesteko hitzarmena” deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—1997rako lan-eskaintza publikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—Lanbide-tailerretako ikasleei bekak emateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—Elortz ibaian, Imarkoain eta Noain inguruan, agertu den kutsadurari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—Agoncillo-ko hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegitik hurbil dagoen Nafarroako eskualderako Nafarroako Gobernuak hartu dituen neurriei eta hura Galilea-ra (Errioxa) lekualdatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
—“Vázquez de Mella” ikastetxe publikoan “A” eredua ezartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—DBH, IEE, LH eta UBIko ikastetxeetan goizeko jarduna bakarrik egiteko baimenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
—D eredua dela-eta, ikastetxe publiko eta pribatuetan sortu diren tirabiren ondorioz Nafarroako Ikastolen Elkarteak aurkeztu dituen salaketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
—Europako Batasuneko estatu kideetako ikastetxeetako ikasle taldeen artean truke eta topaketak egiteko laguntzen deialdiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
—Irakaskuntza publikoan eta itunpekoan dauden sindikatu-liberatuen kopuruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
—Diruz lagundutako eta itunpeko ikastetxeetan dagoen laguntzeko irakasleen guztizko kopuruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
—1996-1997 ikasturtean sare publikoan diren irakasleei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
—Irakaskuntzaz besteko zereginetan ari diren irakasleei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
—Aralarko Mikel deunaren obren egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

**F Saila:**
**GALDERAK**

# "Irakasleen prestakuntza-jarduketak" izeneko 13340-0 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak "Irakasleen prestakuntza-jarduketak" izeneko 13340-0 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 23ko 47. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 16a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Carlos Cristóbal Foru Parlamentari jaunak "Irakasleen prestakuntza-jarduketak" izeneko 13340-0 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderari erantzuteko, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

A. 1997ko irailaren 2an, ondokoa da aipatu kontusailaren egoera:

Hasierako aurrekontua: 127.000.000.

Aurrekontu bateratua: 127.000.000

Aurrekontu baimendua: 55.553.377

Aurrekontu erabilia: 31.528.540

Aurrekontu burutua: 31.528.540

B. Kontusail honen kargura burututako ekintzak eta burutzeko daudenak:

1. 1996/97 ikasturteko planifikazioa. Ahaleginak egin dira 1996/97 ikasturteko Prestakuntza Planean eskainitako jarduketa guztiak aurrera ateratzeko. Programa guztiak sustatu dira: tamaina edo zabalkunde handiena zutenetatik hasi eta arreta zehatzagoa edo zuzenagoa behar duten programetara.

Prozesu horretan, egiazko gastuek, oro har, igoera nabarmena izan dute aurrekontuan agertzen zenetik, izan ere jarduketa batzuen irismena zabaldu behar izan delako (moduluak eta mintegiak, batez ere), ikastetxeen eskaeraren arabera edo hizlariak aldatu direlako edo hizlari berriak aukeratu direlako aurreikusitako programazioa behin betiko zehazteko orduan. Ondokoak azpimarratu behar dira, irakasleengan daukaten irismen edo eraginarengatik.

<u>Haur eta Lehen Hezkuntza:</u>

– Irakurketa-idazketa ikasteari dagozkion modulu eta mintegiak: "Irakurtzen eta idazten Ikastea". Ikastetxe publiko zein pribatuetako 600 bat irakaslek hartu dute parte. Irakasle horiek beren preskuntza-prozesuan jarraitzen dute, eta beste batzuk prozesu horretan hastekotan dira.

– Haur Hezkuntzako 2. zikloan eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan ingelesa ezartzen ari diren atzerriko hizkuntzetako irakasle espezialistak prestatzea.

– Teknologia berriak curriculumean sartzea; bai Informatikan bai Ikusentzunezko Baliabideetan.

Komunitateko ikastetxe guztietan gai horietan prestakuntza duten irakasleak egotea lortzen ari gara.

Jarduketa ezberdinen bidez (moduluak, ikastaroak...) sustatutako gaiak: aniztasunaren tratamendua, zeharkako gaiak curriculumean sartzea, ebaluazioa eta abar. Ahaztu gabe, beti ere, gai guztietan dauzkaten planteamendu curricularrak hobetzeko irakasleak egiten ari diren ahaleginak. Hezkuntza Artistikoan (Plastika, Musika eta Dramatizazioa) egindako ahaleginak azpimarratu behar ditugu, izan ere jarduketa asko egin direlako gai horretaz.

<u>Bigarren Hezkuntza</u>

Aldi horretarako prestatu diren jarduerek erraztasunak eman nahi dizkiete irakasleei DBHa ezartzeak exigitu dizkien aldaketetara egokitzeko.

Ikastaroak, mintegiak, berrikuntza-proiektuak eta abar egin dira arlo guztietan. Horien bitartez zenbait proposamen didaktiko eta metodologiko eta programaziorako eta ebaluaziorako orientazio batzuk zabaldu dira.

Izaera orokorreko gaiak arlo guztietako irakasleei eskainitako ikastaro eta mintegien bitartez landu dira. Ondokoei eman zaie garrantzia:

– Irakasle-tutorearen zeregina Bigarren Hezkuntzan.

– Zeharkako gaiak eta ikasleak baloreetan hezitzea.

– Aniztasunaren tratamendua ikasgelan.

Lanbide Heziketa.

Lanbide Heziketako ikasketa berriak aurretiaz ezartzeak zenbait behar sortarazi ditu irakasle askorengan.

Ondokoak dira interes guztiak biltzeko antolatu diren modalitateak:

– Prestakuntza Ziklo edo Gizarte Bermeko Programa bereko irakasleentzako mintegiak.

– Egonaldiak enpresetan.

– Beste administrazio batzuek antolatutako ikastaro edo prestakuntza jarduketak, ikastetxe edo departamentuetako ekimenei bidea ematen ahal zietenak.

Zehazki, aintzat hartu dira amankomuneko gaietan eta gai berezituetan “arlo profesional” guztiek dauzkaten beharrak.

Araubide Bereziko Irakaskuntzak

Prestakuntza Planak ondokoen prestakuntza iraunkorrari egiten dio arreta:

– Kontserbatorioak, musika eskolak eta dantza eskola.

– Arte Aplikatu eta Lanbide Artistikoen Eskolak.

– Hizkuntza Eskola Ofizialak.

Berariazko Programak

Beste prestakuntza-programa batzuek ondoko aspektuak osatzeko balio dute:

– Zuzendaritza taldeen prestakuntza.

– Hezkuntza Berezia.

– Helduen Hezkuntza.

– Teknologia berriak

– Eskolako orientazioa.

– Europako programak.

– Irakasleak euskalduntzea.

“Hezkuntza Zentroetako zuzendaritza” ikastaroa azpimarratu behar dugu, izan dituen garrantzia eta eskaerak direla eta. Ikastaro horrek aurretiko formazioa ematen du eginkizun horietan jarduteko behar den prestakuntza bermatzeko.

Bestelako jarduketak

Ondokoak azpimarratu behar dira:

– Berrikuntza proiektuak.

Ikasturte honetan, ezaugarri ezberdinetako 26 proiektutarako dirulaguntza eman da, Hezkuntza Departamentuak egindako deialdira bildutakoak. Helburua talde-ikerketa bultzatzea da. Ikastetxeetan beretan burutzen dira, proposamen berritzaileak diseinatuz eta aplikatuz.

– Banakako dirulaguntzak.

Bidea ematen dute beste erakunde edo enpresa batzuek antolatutako prestakuntza jardueretara joateko.

2.- 1997/98 ikasturteko lehen hiruhilekorako aurreikusi diren jarduketak.

Irakasleen Hobekuntzarako Atalak beharrizanei buruz egin duen ikerlanak bidea eman du ikastetxeetako proposamen eta iradokizunei arreta emateko. Beste aldetik, esleitutako diru-zenbatekoak jarduketa multzo handi bat, hain zuzen ere ikasturtearen lehen hiruhilekoan burutuko direnak, biltzen duen Prestakuntza Plan zabal bat lantzeko modua eman digu.

Irakasleek, LOGSEa ezartzeari begira, ondoko programa hauei eman diete lehentasuna edo behintzat hauetan jarri duten interes gehiena:

– Berariazko Lanbide Heziketa.

– Teknologia Berriak (Informatika eta Ikusentzunezko Balaibideak).

Prestakuntzako beharrizan oinarrizkoei erantzun nahi zaie, prestakuntza beste aplikazio eremu batzuetara zabalduz.

– Lan Osasuna. Ariskuei aurre egitea.

Berariazko zenbait ikastaro antolatzeak bidea ematen du ondoko gaiak sartzeko irakasleen prestakuntzan:

– Gai orokorrak.

DBHko ikasleen barariazko arazoei aurre egiteko, batez ere. Beste batzuen artean, ondokoak aipa daitezke:

– Talde dinamika.

– Aniztasuna lantzeko estrategiak.

– Ikasgelako arazoak konpontzea.

– Atzerriko hizkuntzak.

Hizkuntzak ikasteari begira, prestakuntza proposamen gehiago eginen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko abuztuaren 27an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegi Ros

---

## "Guraso eta ikasleen elkarte eta federazioendako eta eskola kontseiluetan partehartzea sustatzeko dirulaguntza" izeneko 13100-9 aurrekontulerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak "Guraso eta ikasleen elkarte eta federazioendako eta eskola kontseiluetan partehartzea sustatzeko dirulaguntza" izeneko 13100-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 23ko 47. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 16a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Guraso eta ikasleen elkarte eta federazioendako eta eskola kontseiluetan partehartzea sustatzeko dirulaguntza" izeneko 13100-9 aurrekontulerroaren burutze-egoerari buruz Carlos Cristóbal Foru Parlamentari jaunak eginiko galderari erantzunez, honako hau agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

1.- 97/9/2an, 13100-9 kontusailaren egoera honako hau da:

Hasierako aurrekontua: 29.000.000

Aurrekontu bateratua: 29.000.000

Aurrekontu baimendua: 26.000.000

Aurrekontu erabilia: 22.477.225

Aurrekontu gauzatua: 22.477.225

2.- 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legea onetsi eta argitaratuz geroztik (1997ko otsailaren 3ko N.A.O.) dirulaguntza-deialdien prozesua hasi zen. Horiek honako ebazpen hauen bidez onetsi ziren: Nafarroako Unibertsitatez bestelako Ikastetxeetako Ikasleen Elkarte eta Federazioen aldeko laguntzen Deialdia onesten duen martxoaren 7ko 209/1997 Ebazpena (97/3/28ko N.A.O.) eta Nafarroako Unibertsitatez bestelako Ikastetxeetako Ikasleen Gurasoen Elkarte eta Federazioen aldeko laguntzen Deialdia onesten duen martxoaren 7ko 210/1997 Ebazpena.

Aipatu deialdien ondorioz, 25.306.375 pezetako balioko dirulaguntzak eman dira. Baimentzeke dagoen kopuruarekin 97/98 ikasturteko lehen hiruhilabetean sor litezkeen hainbat beharrizan eta jarduketari aurre egin nahi zaio.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko irailaren 9a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## Helduak euskalduntzeko dirulaguntza-modulua gehitzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak helduak euskalduntzeko dirulaguntza-modulua gehitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 16a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak galdera egin du helduak euskalduntzeko dirulaguntza-modulua gehitzeari buruz. Hezkuntza eta Kultura kontseilariak hauxe darantzu:

1.- 1997ko aurrekontu berriarekin, urrian argitaratuko den hurrengo deialdiak ezarriko du gaueskolak diruz laguntzeko modulua eta dirulaguntza-moduluaren gehikuntza aurreikusi da, dirulaguntza-eskarien eta aurrekontu-aukeren arabera.

2.- Ikasleko eta orduko moduluaren egungo kostua 76 pta. da eta 550 pta. barnetegian.

3.- Ez. Zaila da gaueskoletako ikasleko eta orduko guztizko kostua balioesten. Departamentuak ez du nahikoa informaziorik, zentroetako jabeen esku baitago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek xedatuarekin bat.

Iruñean, 1997ko irailaren 5a

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxearen egungo egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxearen egungo egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 16a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluarekin eta ondokoekin bat, Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza kontseilariak hurrengo erantzuna ematen dio Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikita dagoen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxeari buruz egin duen galderari:

• Noren menpe dago? Zer organismo edo erakundek eutsi dio horri aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30a bitartean?

• Gizarte Ongizatekoek eta inguru horretako udal arduradunek hitz egin al dute horretaz? Noiz? Zer ondorio atera dute?

• Hartutako erabakiak eta, beti ere, negoziaketa-bidea (zehaztua: bilerak, norekin eta zer).

• Emakumeak hartzeko etxearen etorkizuna: noren menpe eta zer baldintzatan.

Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxearen egungo egoera hauxe da:

Emakumeari Arreta egiteko Eskualde Zerbitzuaren menpe dago. Antsoain, Aranguren, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Uharte eta Atarrabiako udalek osatzen dute.

Zerbitzu horrek eutsi dio aipatu etxe horri, hasmentatik gaur egunera arte eta Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak finantzatu du, oinarrizko gizarte zerbitzuetako programa berezitzat jo izan dutelako.

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak eta Emakumeari Arreta egiteko Eskualde Zerbitzua osatzen duten udal ordezkariek elkarrizketak izan dituzte eta bi bilera egin: 1996ko abenduaren 19an eta 1997ko uztailaren 3an.

Gainera, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak bilera asko izan ditu, oinarrizko osasun laguntzako ataletik, hurrengo lanbidedunekin:

• Emakumeari Arreta egiteko Eskualde Zerbitzua osatzen duten udaletako lanbidedunekin, 1997ko otsailaren 5ean.

• Oinarrizko gizarte zerbitzuetako arlo ezberdinak bateratzen dituzten lanbidedunekin, 1997ko otsailaren 29an.

Honela azal dezakegu negoziaketa-bidea:

• 1995eko maiatzaren 5ean Burlatako Udalak, Emakumeari Arreta egiteko Eskualde Zerbitzuaren Koordinazio Batzordeko ordezkari gisa, eta Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak izenpeturiko Hitzarmenari ez eusteko borondatea.

• Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak abegi egiteko etxearen geroa aztertzea, Emakumeari Arreta egiteko Eskualde Zerbitzuak hala eskatuta.

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak oinarrizko osasun laguntzaren barruko oinarrizko gizarte-baliabidetzat jotzen du abegi etxea.

Foru Komunitate osoari eskaini behar zaio gizarte eta ekonomi errentagarritasun handiagoa izatearren.

Baliabide hori Nafarroa guztira hedatuz gero, organismo autonomoak berak kudeatzea beharrezko dirudi.

Gaur egun, zain gaude Emakumeari Arreta egiteko Eskualde Zerbitzua osatzen duten udalek abegi etxearen geroari buruzko behin betiko erabakia hartzeko, hau da, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak egindako proposamena onartu edota gaur egunera arte erabilitako formulari eutsi.

Hori guztia jakinarazten dizut, bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1997ko irailaren 2a

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

---

## Ezkaba (San Cristobal) mendiaren egoerari eta aipatu mendian eta haren inguruan egin daitezkeen jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ezkaba (San Cristobal) mendiaren egoerari eta aipatu mendian eta haren inguruan egin daitezkeen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 23ko 47. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 18a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ezkaba (San Cristóbal) mendiaren egoerari eta aipatu mendian eta haren inguruan egin daitezkeen jarduketei buruz José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakizkion eginiko galderak direlaeta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan Ezkaba mendia naturgune izendatzeko aukera

aztertu al du edo egiteko borondaterik al du, honela naturaren, paisaiaren, kulturaren edo historiaren aldetik dituen baloreen iraupena berma dadin eta bertan Iruñeko eta inguruko bizilagunek izan ditzaketen erabilera eta gozamena antola daitezen?

Nafarroako Gobernuak, Ezkaba mendiaren erabilera publiko garrantzitsuaz eta mendi horrek iruindarren zein Iruñerriko biztanleen kopuru esanguratsu baten artean duen balioespen sozialaz jabeturik, Ezkaba babesturiko naturgune deklaratzeko asmoa du, Aisialdiko Eremu Naturalaren kategorian. Eremu hauek naturari edo paisaiari dagozkien zenbait balio dituzte, eta izendapen hori hartzen dute haien babesa edo hobekuntza lortzeko, aldi berean leku horretan dauden erabilerak antolatuz, balio horien narriadurarik gerta ez dadin.

Ezkaba mendiko jarduketak haren titularitatean hainbat udalek parte hartzeak eta, batez ere, bertan dirauen gotorleku militarraren titularra Defentsa Ministerioa izateak baldintzatzen dituzte.

Defentsa Ministerioarekin jabetzaren egoera behin betiko argitu eta mendiaren titularkide izanik gune horrekin mugatzen duten udalerrien artean gutxieneko adostasun bat lortu bitartean, arrazoizkoa dirudi aurreikusiriko babes-figura ofizialki abian ez jartzeak.

2.- San Cristóbalgo gotorlekuaren eta bertara doan errepidearen titularitate administratiboa zer egoeratan dago? Defentsa Ministerioaren esku jarraitzen al du oraindik ere?

Bai San Cristóbalgo gotorlekua bai bertara doan errepidea gaur egun Defentsa Ministerioarenak dira, eta horrela agertzen dira bere ondarearen inbentarioan, Nafarroa aurkitzen den eskualde militarreko azpiegituren arloan.

3.- Titularra hura balitz, Defentsa Ministerioak gotorlekua eta errepidea epe motzean bere ondarera eskualdatzeko izapidaketak egiteko edo hasteko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak? Zer izapidaketa egin beharko lirateke Nafarroako Foru Komunitatea bien jabea izan dadin?

1993ko maiatzaren 25ean, Defentsa Ministerioak San Cristóbalgo bere ondasunak saltzeko eskaintza bat egin zion Nafarroako Gobernuari. Lehenengo harreman honen ondoren, elkarrizketek ez dute jarraitu, eskaintza oso garestia jo zelako, batez ere eraikinen egoera (horietako batzuk erdi-hondaturik daude) eta errepidearena (egokitu eta hobetzeko inbertsio haundi bat behar du) kontuan edukiz.

Nolanahi ere, egin beharreko izapideak zuzenean Defentsa Ministerioarekin egin beharko lirateke, horren jabetzako ondasunak Estatuko Ondarearen kontroletik kanpo geratzen baitira.

4.- Komenigarri iruditzen al zaio Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari jabearekiko hitzarmenaz nahiz beste bide batez, errepidearen zolaketa indartzea mendiaren erabilera eta gozamena eta ibilgailu motordunak bertara segurtasunez iristea ahalbidetzeko?

Ezkaba mendira sartzeko errepidearen titularra Defentsa Ministerioa da. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua erabat jabeturik dago aipatu errepidearen egoera ezin okerragoaz, eta, bestetik, horren erabilera handiaz.

Aurrekoan oinarrituz, lehenengo eta behin, zera esan daiteke: Nafarroako Gobernuaren titularitatekoa ez izanik, printzipioz ez dela egoki Departamentu horren ezein jarduketa.

Dena den, duela zenbait hilabete Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak harremanak hasi zituen Defentsa Ministerioaren ordezkariekin, titularitate hori eskualdatzeko akordio bat lortzen saiatzeko, errepide horrek zerbitzu publikoko interes ukaezin bat duela jotzen baita. Gaur egun, negoziazio horiek aurrera jarraitzen dute, eta emaitzak onak izatea espero da; hala balitz, Departamentu honek errepide hori konpontzeari ekingo lioke.

5.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak legegintzaldi honetan planen bat edo mendian egiten diren erabilerak eta jarduerak nahiz natur eta kultur baloreak antolatzeko zerbait egitea aurreikusi al du?

Ezkaba mendia Aisialdiko Eremu Natural deklaratzeak derrigorrez ekartzen du bertan burutu daitezkeen eta babesturiko naturgune izateko merezimenduak eman dizkioten balioak kontserbatzearekin bateragarri diren erabilera eta jardueren antolamendua egitea, egoki den Erabilera eta Kudeaketa Planaren bitartez.

Halaber, eremua hainbat aldetan banatu beharko da: erabilera intentsiboko inguruak, ibiltzeko edo seinaleztaturiko bideenak eta baso-erabilera lehentasunezkoa daukatenak.

6.- Basoak zaintzeko eta hobetzeko nolako jarduerak aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak hurrengo urteetarako Ezkaba mendian? Piskanaka bertakoak ez diren zuhaiztien ordez autoktonoak jartzea aurreikusi al du? Inguruan basoetan jardun dezaketen udalen jardueren nolako jarraipena eta kontrola egiten da?

Basoak zaintzea eta hobetzeari dagokionez Ezkaba mendian buruturiko eta etorkizunerako aurreikusiriko jarduketei buruz zera esan daiteke:

– Hegoaldeko hegian basogintza-lanen lehenengo fasea burutu da, INEMekin lankidetzan.

– Antsoain eta Ezkabarteko pinudietan zuhaitz-erauzketarako eta jabe diren udalerriek ondoren salmenta egin dezaten seinalaketak egin dira.

– 1998rako aurrekontuan hainbat basogintza-lan sartzea aurreikusten da, mendia hobetu eta garbitzeko, espezieei eraginez.

Udalerriek burutzen dituzten jarduerei dagokienez, zera esan behar da: baso-ekoizpenak ez dira baliabide garrantzitsuak horietako batentzat ere, eta, basoari errendimendurik ateratzen ez diotenez gero, basoa baldintza onetan edukitzeko ez dute baliabide ekonomikorik inbertitzen ere.

Hala ere, udalerri hauek jabetzen dira Ezkabaren etorkizuna Iruñea eta Iruñerriarentzat atseden-leku izatearena dela, eta ongi deritzote leku hori baldintzarik onenetan kontserbatzeko jarduketak burutzeari.

7.- Gotorlekura doazen bisitarien segurtasuna bermatuko duten neurriak hartzea beharrezkoa dela uste al du Nafarroako Gobernuak, honela pertsonek arriskurik gabe bisitatu ahal dezaten?

Begi-bistakoa da San Cristóbal gotorlekua bisitatzen dutenen segurtasuna bermatu egin behar dela. Baina begi-bistakoa da, baita ere, segurtasun hori bermatzeko beharrezkoak diren neurriak jabeak hartu behar dituela; jabea, lehen adierazi bezala, Defentsa Ministerioa da.

Beraz, Gobernuaren eginkizun zehatza, kasu honetan, gehiago datza segurtasun-neurriak hartzen direla ikuskatzean, Gobernuak berak segurtasun-neurriak hartzean baino.

Gainera, San Cristóbal gotorlekua itxita dago eta zenbait zonatan sartzeak duen istripu-arriskuaz ohartarazten duten seinaleak badaude.

8.- San Cristóbalgo gotorlekuan nolako erabilerak aurreikusten dira edo aurreikus daitezke? Gotorlekuan jarduera kultural, historiko, aisialdikoak, ostalaritzakoak edo bestelakoak egin daitezke ekimen pribatuarekin edo sozialarekin hitzartuz eta modu antolatuan? Toki honetarako ideia-lehiaketarik egitea pentsatu al du Nafarroako Gobernuak?

Une honetan ez dago inolako erabilera-aurreikuspenik gotorlekuarentzat. Jabetzaren afera konpondu eta eraikuntza-egoera sakonki aztertu ahal izan bitartean, ezin da erabilera-aurreikuspenik egin; galderan aipatzen den ideia-lehiaketa baterako deialdirik ere ezin da egin, azalduriko zirkunstantziak derrigorrez aldez aurretik ebatzi beharreko baldintzapenak baitira.

9.- Egoki iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari mendi-magalean askaldegiak jartzea, bideak seinalizatzea, bere balore kultural eta historikoak gogoraraziko dituzten monumentuak edo mugarriak jartzea, edo balore hauen oroigarri eta adierazgarri gisa planoren bat argitaratzea?

Ezkabako naturgunearen Erabilera eta Kudeaketa Planak burutu beharreko jarduketak aurreikusi beharko ditu, eta ea askaldegiak edo bestelakoak jarri behar diren ala ez. Plan hori egin gabe dago, eta, beraz, une honetan ezin da esan zer egin beharko den eta zer ez. Dena den, zera aurreikusten da Ezkaba mendiaren hegoaldeko hegiko basogintza- eta aisialdirako egokitze-lanaren fase batean: ibiltariek atseden hartu ahal izateko mendi-altzariak ipintzea.

Halaber, interesekoak jotzen diren hainbat bide eta ibilbide 1998ko ekitaldian sortu eta seinaleztatuko direla aurreikusten da.

10.- Zein dira Iruñerriko Hirigintza Arauen prestaketa-lanetan eta indarrean dagoen udal hirigintza-planeamenduan mendirako dauden aurreikuspenak? Aurreikuspen hauek mendiaren babes nahikoa ziurtatzen al dute urbanizazio-aukeren aurrean edo naturgune deklaratu arte eragin negatiboa izan dezaketen balizko beste jarduera batzuen aurrean?

Kontuan eduki behar da Ezkaba mendiari eragiten dion hirigintza-planeamendua mendi hori partzialki beren dermioetan daukaten udalerriena dela. Hori horrela, Antsoain, Berriobeiti, Berriozar eta Ezkabarteko hirigintza-planeamenduak gehienbat baso-lurzoru gisa sailkatzen du Ezkaban kokaturiko bakoitzaren dermio-zatia.

Iruñerriko Hirigintza Arauen prestaketa-lanei dagokienez, horiek zera aurreikusten dute: Ezkaba mendi guztiarentzat foru berri berezi bat ezartzea.

Hainbat udalerrik amankomunean duten lurralde honek zer nolako izaera hartuko duen aztertu beharko da estatutu horretan. Izaera horrek ez du zertan bateraezina izan behar egungo legediak ezartzen dituen lurzoru ez urbanizagarri kategoriekin eta bertan burutzen ari diren erabilerekin; gaur egungo erabilera eta jarduera horiek, bestalde, ez dute etorkizunean Ezkaba mendia babesturiko naturgune izatea eragozten.

11.- Kultur Intereseko Ondasun deklaratu al da San Cristóbalgo gotorlekua? Hala ez bada, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak legegintzaldi honetan Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko asmorik al du?

San Cristóbalgo Gotorlekua ez dago Kultur Intereseko Ondasun deklaraturik. 1997ko ekainaren 24an, Kultura Zuzendari Nagusiak Iruñeko gotorleku guztiak –hauen barnean arkeologia-hondarrak, deklaraturiko gotorlekuak, Iruñeko Gotorlekua eta San Cristóbalgo Gotorlekua– Gizateriaren Ondarearen aurretiazko zerrendan sartzeko eskaera entregatu zuen Hezkuntza eta Kultura Ministerioan.

Une honetan San Cristóbalgo Gotorlekua Interes Kulturaleko Ondasun deklaratzea aztertzeari ekin zaio, haren babes juridikoa Iruñeko gotorlekuak osatzen dituzten beste elementuenari egokitzeko, baina argi dago Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren asmoa espediente garrantzitsu hau aurrera eramatea dela, eta, ondorioz, bere elementu guztiak legez babestea, Espainiar Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea aplikatuz.

12.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak mendian dauden arkeologia-aztarnategiei edo balore kultural eta historikoei buruzko ikerketarik egin al du? Egina ez balego, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan burutzeko borondaterik al du?

Hezkuntza eta Kultura Departamentua Arkeologia Ondarearen Inbentarioa egiten ari da, eta horren prestaketan ez da oraindik Iruñeko Merindadera eta, beraz, Ezkaba Mendira iritsi.

Dena den, aurreko urteetan Ezkaba Mendiaren eta Iruñerriaren prospekzio sistematikoan gauzatu diren hainbat jarduketa baimendu zaizkio Nafarroako Unibertsitateko Arkeologia Departamentuari; hori dela-eta, zera esan dezakegu: azterketa egin dela, oraindik Nafarroako Gobernuak eskuratu ez badu ere.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatutakoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko irailaren 9a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## “Eraikin historikoak bereoneratu eta babestea” izeneko 90065-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak “Eraikin historikoak bereoneratu eta babestea” izeneko 90065-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 23ko 47. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 18a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Carlos Cristóbal Foru Parlamentari jaunak “Eraikin historikoak bereoneratu eta babestea” izeneko 90065-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruz egindako galderari erantzuteko, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. 1997ko irailaren 2an, ondokoa da 90065-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoera:

Hasierako aurrekontua: 323.000.000

Aurrekontu bateratua: 323.000.000

Aurrekontu baimendua: 255.580.401

Aurrekontu erabilia: 189.677.730

Aurrekontu burutua: 98.301.260

2. Fitero: absideetako eta sakristiako teilatuak zaharberritzea, bai eta sakristiaren barrualdea eta elizarako pasabidea ere.

Corella: La Encarnación museoa. Komentu zaharraren teilatua ordeztea, eta solairu bat botatzea oilategi zaharra kentzeko.

Donamaria: Jauregia dorrea. Jauregia izeneko dorrerako proiektua eta zaharberritze lanak. Dorreak zuraje handia du eta zurezko oholtza.

Tutera: Palacio Decanal izenekoa. Palacio Decanal izenaz ezagutzen dena erabat zaharberritzea Elizbarrutiaren museoa, artxiboa eta liburutegia jartzeko.

Aralarko San Migel: Teilatua ordeztea, hezetasun arazoak kentzea lurretik eta eraikina goitik behera onbideratzea.

Iruña: Presako lanak arkupeko teilatuaren alde bat konpontzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko irailaren 11n

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegi Ros

---

# Itoizko urtegiko ur baliabideak neurri batean beste komunitate batzuetara eramateko Ebroko Ur Konfederazioarekiko akordioei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Itoizko urtegiko ur baliabideak neurri batean beste komunitate batzuetara eramateko Ebroko Ur Konfederazioarekiko akordioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 30eko 49. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 19a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak hurrengo erantzuna ematen dio Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikita dagoen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak beste erkidegoek Itoizko urtegiko urbaliabideak hartuko ote dituzten egin duen galderari:

1.- Zer komunitate izango dira onuradunak? Ustiapen horiek gauzatzeko zer inbertsio egin beharko da? Ur baliabideei zer nolako erabilerak emanen zaizkie?

Hona Herrilan Departamentuak Itoizko urtegiak erregulatzen dituen ur-baliabideei buruz dituen dokumentuak:

1.- Herrilan eta Hirigintza Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak obra hidraulikoei buruz egin duten lankidetza hitzarmena, 1988ko urriaren 19an izenpetua. Haren lehen puntuak dio aipatu Ministerioak Itoizko urtegia, besteak beste, egingo duela Irati ibaiaren gainean. Urtegiaren oinarrizko helburutzat dugu Nafarroako ubidea urez hornitzea, etorkizunean 50.000 ha. ureztalur bihurtzeko. Aurreproiektua egiteko, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta Ebroko Ur Konfederazioaren arteko Lankidetza Hitzarmena izenpetzekoa zen. Izenpetua dago jada."

Aipatu lankidetza-hitzarmenarekin bat, Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak Itoizko urtegia egin ez ezik, Itoizko urtegiaren bitartez Nafarroako ubidea urez hornitzea bermatzeko beste jarduketa burutu behar ditu, Foru Komunitateko 50.000 ha. baino gehiago ureztalur bihurtzeko gero.

2.- Herrilan eta Hirigintza Ministerioak 1990eko azaroaren 2an emandako ebazpenean, Itoizko urtegiaren proiektuaren behin betiko onespen teknikoari buruzkoan, ageri da urtegiaren xede zehatza, alegia, Irati ibaiaren emaria erregulatzea, Nafarroako ubideak eramango duen ura ureztalurretan eta horniduretan erabiltzeko. Horrekin batera, 3/1992 Errege Dekretu Legeak, interes orokorrekotzat jotzen du aipatu urtegia. Bi horiek dakarte baliabideak Foru Komunitatean ustiatzeko gordetzea.

3.- 1993ko maiatzaren 12an, Nafarroako Foru Komunitatea eta Ebroko Ur Konfederazioa bildu ziren El Bocalen. Bilera horren aktan erasota geratu zen Itoizko urtegiak erregulatuko zituen urak erreserbatu beharra zegoela ureztalurretarako, populazioen hornidurarako eta industri erabile-

retarako, Nafarroako ubidearen bidez egingo zirela horiek, Foru Komunitatearen esparruan. Horretarako, Ebroko Ur Konfederazioak erreserba dekretatu eta Uren Erregistroan inskribitu behar zuen, Uraren Administrazio Publikoaren eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduko 77. artikuluaren eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko 92-2 artikuluaren arabera.

4.- Ebroko Ur Konfederazioaren buruak 1993ko ekainaren 22an emandako ebazpena, Itoizko urtegiak erregulatzen duen emariaren erreserbari buruzkoa. Hurrengo kopuru eta helburuak ditu:

Urteko 340 $hm^3$, Foru Komunitatearen barruko lurrak ureztatzeko, Nafarroako ubidearen bitartez.

Urteko 60 $hm^3$, Komunitate Autonomoko populazioak eta industriak aipatu ubideko urez hornitzeko.

5.- Nafarroako Gobernuak 1993ko ekainaren 28an hartutako erabakia, aurreko idazatian aipatu den Ebazpenaren berri baduela jakinarazteko.

Nafarroako ubidearen lehen fasea eraikitzeko aurreikusi diren kostuak, 23.470 milioi pezeta (%40) dira Foru Ogasunarendako eta 34.580 milioi (%60) Estatuko Administrazioarendako, bi Administrazioek izenpetu duten protokoloaren arabera. Aurrez ikusi dutenez, inbertsioa hamar urtetan egingo da (2005.era arte).

Beste alde batetik, Nafarroako ubidearen lehen faseak urez hornituko duen aldean ureztalurrak egiteko behar diren inbertsioak 52.886 milioi dira. Horietarik 36.615 milioi Nafarroako Gobernuak finantzatuko ditu eta gainerakoa, 16.271 milioi, nekazariek.

Inbertsio hori hamalau urtetan egingo litzateke (2012.era arte).

2.- Nafarroako Gobernuak Konfederazioak aipatutako erabilerez duen interesaz nolako ezagupena duen.

Aurreko puntuan aipatu diren dokumentuetan agertzen diren erabilerez bestelakoei buruz Ebroko Ur Konfederaziok izan dezakeen balizko interesa dela-eta, Herrilan Departamentuak ez daki ezer.

Iruñean, 1997ko irailaren 15a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## Herri ekimenez sortutako zentroetan inbertsioak egiteko laguntzari buruzko hogeita zazpigarren xedapen gehigarriari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak herri ekimenez sortutako zentroetan inbertsioak egiteko laguntzari buruzko hogeita zazpigarren xedapen gehigarriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 30eko 49. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 19a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Herri-ekimenez sortutako zentroetan inbertsioak egiteko laguntzari buruzko hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren garapenari buruz Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak eginiko galderari erantzunez, zera agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

Orain arte ez da izenpetu hitzarturiko zentroekin inbertsioak egiteko inolako laguntza-itunik, horretarako aurrekontu-lerroak esleituta duen kopurua (milioi bat pezeta, gehitu daitekeena) argi eta garbi motz geratzen baita zentroen eskaerei erantzun ahal izateko, kontuan izanik gaur egun ez dela beste kontusailetako soberakinik geratzen 12670-6 lerroa gehitzeko.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko irailaren 15a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## Institutos Técnicos y de Gestión direlakoen merkataritza-jarduerei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Institutos Técnicos y de Gestión direlakoen merkataritza-jarduerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 19a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Institutos Técnicos y de Gestión” direlakoek buruturiko balizko merkataritza-jarduerei buruz Andrés Basterra Layana, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak:

1.- Institutu Tekniko eta Kudeaketakoen helburuak hauek dira: laguntza teknikoa, esperimentazioa eta ikerketa.

2.- “Instituto Técnico y de Gestión Agrícola” delakoak ez du inolako merkataritza-jarduerarik burutzen.

“Instituto Técnico y de Gestión Ganadero” delakoak eginiko galderarekin zerikusia duten honako jarduera hauek burutzen ditu:

a) Ikerketa eta Garapenerako proiektuen esperimentazio praktikoaren ondorioz, hainbat produktu lortzen du, eta hauek alferrik ez galtzeko, hala nola jarduerak burutzen diren finketako kostuei aurre egiteko, merkatuko prezioan merkaturatzen ditu, logikoa denez.

b) Hautapen eta hobekuntza genetikorako zentroak; hemen, funtsean, azienda, eta, azken finean, bere errentagarritasuna eta etorkizuneko bideragarritasuna hobetzeko ugalketa-sistemak sustatzeko zerbitzu bat ematen zaie abeltzainei.

Semenaren, eta, batzuetan, ugalketarako hautaturiko abereen merkaturatzea kosturik txikienean eta jarduera jakin batzuetan egiten da, dirulaguntzekin, Institutuaren helburuak betetzeko, eta, era berean, xede hauetarako Europako Batasunak ematen dituen laguntzak lortuz.

c) Errentagarriak ez izateagatik edo ikerketaren emaitza diren teknologiak aplikatzearen ondorioz berriak izateagatik enpresa pribatuak asetzen ez dituen beharrei aurre eginez burutu ditu Institutuak merkataritza-jarduerak.

Joan den urtearen erdi-aldeaz geroztik merkaturatze-jarduera hau bertan behera utzi da; aurreko beste biak ez, ordea, Institutuaren lehentasunezko eta ordezkaezinezko jarduerak kontsideratzen direlako.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko irailaren 15a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

---

# Erriberako hainbat herri gasez hornitzeko "Gas Navarra"rekin izenpeturiko hitzarmenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Erriberako hainbat herri gasez hornitzeko "Gas Navarra"rekin izenpeturiko hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 26a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Luis Gerardo López Eslava, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak Erriberako hainbat herri gasez hornitzeko "Gas Navarra"rekin izenpeturiko hitzarmenari buruz idatziz erantzun diezaioten egin duen galderaren inguruan, Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Hitzarmenean aurreikusten diren herriak aukeratzeko, zer irizpide erabili ditu Nafarroako Gobernuak?

Aurreikusitako herrien aukera egiteko Nafarroako Erdialdea eta Erribera gasez hornitzeko aukerei buruzko ikerlan bat hartu zen oinarri. Ikerlan horretan, dagoen azpiegituratik abiatuta, eskualde horretako industria, etxe eta merkatarien kontsumoei erantzuteko dauden gasbide eta banaketa-sare ezberdinen eskaerak, kostuak eta errentagarritasuna ebaluatu ziren.

Kontuan hartuta gasaren azpiegitura oso garestia dela, oinarrizko sarea eraikiko da soilik horrenbesteko inbertsioa justifikatzen duten kontsumo eskuragarriak baldin badaude. Praktikan hori industri sektorean gertatzen da, batez ere. Oinarrizko sare horretatik abiatuta posible da hornidura sareak zabaltzea herrietako etxe eta merkataritza lokaletarako, sarearen ibilbidean edo haren inguruan badaude. Horrelako hornidurak, bestela, ezinezkoak lirateke kasurik gehienetan.

Horretarako oso adierazgarria da azpimarratzea 1996ko gas naturalaren kontsumoa 2.248,9 milioi termiakoa izan zela Nafarroan. Horietatik 1.782,8 termia industrietan erabili ziren eta 466,1 milioi termia etxeetan eta merkataritza lokaletan erabili ziren.

Beste aldetik, energia-dibertsifikazioaren helburua da, funtsean, produktu solidoak eta petroliotik heldu direnak kendu eta kutsadura gutxiago sortzen duten erregaiak jartzea haien ordez. Helburu horretara orokorki eta behar bezala iristeko modu bakarra gas naturala erabiltzea da. Kontsumo hori 1989. urtera arte ia ez da existitu ere egin gure Komunitatean. Horrek berekin ekarri du Nafarroak erabaki handiz jokatzea, hasieratik, gasbideak eraikitzearen alde. Eraikuntza-lan horiek errentagarritasun baldintzetan burutu ahal izateko, Foru Komunitatearen diru-ekarpenak behar izan dira. Modu horretan sarearen eraikuntza aurreratu egin da, bestelakoan urte askotan gasez hornituko ez ziren eskualdeetan, eskualde

horiei askoz ere lehiakortasun eta erakargarritasun handiagoak ekarriz inbertsioak egiteko. Beste komunitate autonomo batzuek jokamolde horri jarraitu diote gero.

Era berean, kontuan hartzen bada industri enplegua Nafarroako eskualde ezberdinetan populazioaren batezbeste oso antzekoan banatzen dela eta industri kontsumoa erabakiorra gertatzen dela gasbidearen adar jakin bat eraikitzeko orduan, azpimarratzekoa da bi lehentasun horiek (industri sektoreaz eta etxebizitzez arduratzea) bat datozela, oro har, azaldutako irizpideak aplikatzen badira.

Dibertsifikazioaren helburua arrazoizko ekarpen batzuekin uztartzeak derrigorrez ekarriko du inbertsioaren eta adar ezberdinetako kontsumoaren arteko erlazioa egokia izatea, beti ere bestelako programei uko egin gabe, Foru Komunitatearen lankidetza bideragarria izan dadin aurrekontuetan. Inguruabar horiek guztiek batera gradualki eta faseetan jardutea aholkatzen dute, gasbidearen sarea ahalik eta eskualde gehienetara zabaltzeko, azaldutako irizpideen arabera.

Jarduteko modu horren bidez eraiki zen hasieran Iruñeko gasbidea (bertan baitago industri jarduera eta populazio gehiena). Haren atzetik, hitzarmen eta fase berriak etorri ziren. Horien bitartez gasa jarri da Lizarra, Altsasu, Lesaka, Zangoza, Zubiri, Cáseda, Cortes, Buñuel, Cascante, Agoitz eta Leitzan (eraikitzeko lanetan), Iruñeko erdieraztuna indartu da eta nazioarteko hartunea egin da, besteak beste.

Irizpide horiexekin ekin nahi zaio orain Nafarroako Erdialdea eta Erribera gasez hornitzeari.

Horren guztiaren emaitza da gas naturala, gaur egun, Foru Komunitatean guztira kontsumitzen den energia guztiaren % 20 dela, eta 32 herrietara (32.000 bezero) zabaldu dela.

Nafarroako Erdialdea eta Erribera gasez hornitzeko berriki egin de akordioaren ondotik, aurreikusita dago gas naturala energiaren guztizko kontsumoaren % 25 izatera ailegatuko dela. Salmentak 3.800 milioi termiara ailegatzea espero da. Zenbateko horiek Europako Batasunean bertan aurreikusi den batezbestekoa gainditzen dute. Espainiako kasuan, 2.000. urterako dauden aurreikuspenen arabera, gas naturalaren kontsumoa guztizko kontsumoaren % 12 izatea espero da.

Era berean, gasbidearen adar berriak eraiki ondoren, beste 23 herritara ailegatuko da hornidura. Horrek berekin ekarriko du Nafarroako populazioaren % 77k inguru naturala eta ingurunea errespetatzen duen energia bat erabili ahal izatea. Behin lanak bukatzen direnean, 3.000 biztanle baino gehiago dituzten Nafarroako herri guztiek gas naturalaren hornidura izanen dute. 2.000. urtean, berriz, 68.000 bezero egongo dira guztira, 60 herri baino gehiagotan.

2 eta 3. Gas natural sarea Nafarroako beste eskualde batzuetara hedatzeko aukera aztertu al du Nafarroako Gobernuak? Gas naturalaren hornikuntza beste eskualde batzuetan ez dela bideragarria uste al du Nafarroako Gobernuak?

Aztertu da eta aztertzen jarraituko da azaldutako irizpideen arabera oraingo fasetik abiatuta lanari ekingo zaion eskualdeetan, gas naturala nahiz petrolioko gas likidotua (P.G.L.) erabiliz.

Dena den, gas naturalari dagokionean, lortuko den hedadura hain izanen da altua non, arrazionaltasun irizpideak aplikatuz gero, gero eta gehiago izanen baitira lan horiei ekiteko zailtasunak.

Beste aldetik, gaur egun eskualde edo herri jakin batzuetan gasa jartzeko modurik ez izateak ez du esan nahi hori sekulan aldatuko ez denik. Aski izango litzateke, kasu batzuetan, enpresa bat ezartzea edo auzoen kopuruak gora egitea gaur justifikaezina dena bihar justifikatzeko modukoa izateko. Beraz, gas naturalaren aukera beti egongo da.

Era berean, aurrera egiten ari gara gaur saretik urrun dauden herrietarako alternatiba batzuk aztertzen, etxebizitzetan PGLk jartzeko. Gas horrek antzeko abantailak ematen dizkio etxebizitzaren erabiltzaileari. Edozein kasutan ere, beharrezkoa da sare horiek gas naturalaren gasbideak jartzeko behar diren zehaztapenak betetzea. Horrenbestez, egoera hori aldi baterakoa izan daiteke, harik eta gas naturala jartzen den arte.

Iruñean, 1997ko irailaren 23an

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria, Ramón Bultó Llevat

# Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuen kontratazioari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuen kontratazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 26a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeko kide den Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuen kontratazioari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak:

1.- Hona gomita luzatu zitzaien enpresak:

– “Dos Folios y Medio”

– “Sanchis y Asociados”

– “Burson-Marsteller”

2.- “Burson-Marsteller”i esleitu zitzaionak 5.250.000 pezeta jotzen du.

3.-Kontratua oso mugatua da iraupenaren aldetik zein jarduera-eremuarenetik, hiru hilabeteko iraupena baitu, luzagarria bada ere. Epe horretan, “Burson-Marsteller” enpresak hurrengoak egin ditu: Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko informazioa bildu, pertzepzio-mapa eta jarduketa-plan estrategikoa definitu.

Eta hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko irailaren 19an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

---

# Burson-Marsteller komunikazio-enpresari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Burson-Marsteller komunikazio-enpresari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 26a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko kide den Adolfo Araiz Flamarique Foru Parlamentari jaunak Burson-Marsteller komunikazio-enpresari buruz egin duen galdera dela-eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak:

1.- “Riegos de Navarra, S.A.”k kontratatu du “Burson-Marsteller” komunikazio-enpresa.

2.- a) Hona diru-kopurua zer aurrekontu-lerrotik atera zen: “Ureztalurrak sustatzea landa-garapenaren esparruan”; zenbakia, 26940-0; programa, nekazaritza baliabideak hobetzea; kode-zenbakia, 200001-71400-4400-2-5321; Nafarroako Gobernuko indarreko Aurrekontu Orokorren baitan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren barruan.

b) Komunikazioaren munduan ospea duten hiru enpresen artean egin zen aukera, eta “Burson-Marsteller” izan zen hautatua, lanbide-kredentzialengatik, lan-esperientziagatik eta baldintza ekonomiko egokiengatik.

3.- 5.250.000 pezeta kobratu ditu "Burson-Marsteller"ek proiektuan zetozen ekintzak taxutu eta garatzeagatik Kontratuaren indarraldia hiru hilabete da. Epe hori bukatzean aztertuko da kontratuari eusteko egokitasuna.

4. Enpresa aukeratzeko garaian kontuan izan ziren Danonen, Iruñerriko Mankomunitatean, Expo 92an, HIESari buruzko kanpainetan, Port Aventuran izan dituen jarduketak eta Drogaren aurkako Kirolarien Elkartearekiko lankidetza.

5. Itoizko urtegia-Nafarroako ubidea proiektuak badu iritzi publikoaren zati handi bat, gauza jakina da. Horra, bada, komunikazioan aditua den enpresa baten aholkularitza izateko egokitasuna.

Administrazioen zerbitzuek badituzte bere eskumenak, baina ez, ordea, aipatu zerbitzuen ahalmena gainditzen duten ezagupenek eskatzen duten materia-berezitasuna.

Eta hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko irailaren 19an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

---

## Lurzoru, etxebizitza eta birgaitzeari buruzko aurrekontu-kontusailen 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak lurzoru, etxebizitza eta birgaitzeari buruzko aurrekontu-kontusailen 97-9-1eko betetze-mailari buruz egin duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 26an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko "Izquierda Unida-Ezker Batua" Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak galdera egin du hainbat aurrekontu-kontusailen 97-9-1eko betetze-mailari buruz. Horra Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Etxebizitza-arloko jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alogera).

Hona etxebizitza-arloko jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alogera) aurrekontu-kontusailaren betetze-maila, 1997.09.15ean:

Erosketa..........1.372.612.312 pta. (Dirulaguntzak)

Zaharberritzea....571.440.363 pta. (Dirulaguntzak)

Alogera..............299.839.733 pta. (Dirulaguntzak)

Maileguen subsidiazioa............1.821.370.025 pta.

Guztira....................................4.065.219.433 pta.

Kontusailaren betetze-maila %58,71 da. Kontusailak 6.924.000.000 pta. jotzen du.

2.- Lurzoru eta etxebizitzaren erosketa eta sustapena.

Hona lurzoru eta etxebizitzaren erosketa eta sustapena aurrekontu-kontusailaren betetze-maila, 1997.09.1ean:

Mendillorriko eraizpenak......................10.626.987

Urbanizazioa, Ud. E
Sanduzelai-Iruñea ...............................53.676.613

Urbanizazioa, Ud. B-3
Noain ...................................................8.224.035

Urbanizazioa, Alemanes
poligonoa-Iruñea...................................4.880.938

Urbanizazioa, Ud. E,
Sanduzelai........................................169.318.093

Urbanizazioa, UE-17,
AR 6b Tutera ......................................21.196.333

Urbanizazioa, UE16,
AR 6b, Tutera .......................................1.398.754

Guztira .............................................269.321.753

Kontusailaren betetze-maila %22,44 da. Kontusailak 1.200.000.000 pta. jotzen du.

3.- Herrigune historikoak birgaitzeko eta beren leheneratzea finantzatzeko bulegoentzako dirulaguntzak.

Hona herrigune historikoak birgaitzeko eta beren leheneratzea finantzatzeko bulegoentzako dirulaguntzak kontusailaren betetze-maila, 1997.09.15ean:

Tafalla ....................................................6.566.074
Iruñea....................................................5.253.433
Iruñerria ................................................4.905.010
Tutera ...................................................5.999.766
Iparmendebaldea...................................2.630.998
Lizarra....................................................2.819.739
Guztira ................................................28.175.020

Kontusailaren betetze-maila %12,25 da. Kontusailak 230.000.000 pta. jotzen du

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Errregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 1997ko irailaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## “Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak” deituriko 11000-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak” deituriko 11000-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egin duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 26an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko “Izquierda Unida-Ezker Batua” Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak galdera egin du “Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak” deituriko 11000-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz. Horra Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Zein den, irailaren 1eko datarekin, izen hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak, 11000-1 lerro-zenbakia.

Kontusaila: “Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak”.

Lerroa: 11000-1

1997-9-1eko egoera:

Hasierako kreditua:.........................5.500.000 pta.
Hitzartua: (*)...................................5.399.800 pta.
Aldea:...............................................100.200 pta.
Betetze-maila...........................................%98,66

(*) Hitzartua:

Maiatzaren 29ko 1.718/1997 Ebazpenak erabaki zuen 1997an zehar Bertizko jauregian 3 erakusketa egiteko lehiaketa. Esleipenaren kopurua 5.399.800 pezeta izan zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Errregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 1997ko irailaren 15ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

# “Ingurugiro hezkuntzarako programetarako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten beste jardueretarako dirulaguntzak” izeneko 11090-7 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Ingurugiro hezkuntzarako programetarako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten beste jardueretarako dirulaguntzak” izeneko 11090-7 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egin duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 26an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko “Izquierda Unida-Ezker Batua” Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak galdera egin du “Ingurugiro Hezkuntzarako programetarako eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jardueretarako dirulaguntzak” izeneko 11090-7 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz. Horra Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Zein den, irailaren 1eko datarekin, izen hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: ingurugiro-hezkuntzarako programetarako eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jardueretarako dirulaguntzak, 11090-7 lerro-zenbakia.

Kontusaila: Ingurugiro Hezkuntzarako programetarako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten beste jardueretarako dirulaguntzak

Lerroa: 11090-7

1997-9-1eko egoera:

Hasierako kreditua:......................15.000.000 pta.

Erabilia: (*) ....................................2.983.890 pta.

Hitzartua: (**) ...............................11.992.785 pta.

Betetze-maila...........................................%99,84

(*) Erabilia:

2.808.180 pezeta hauxe ordaintzeko: ikastetxetako ingurugiro-heziketa jardueretarako laguntzetarako bi urteko deialdiaren (1996-1997) 1997ko zatia.

175.710 pezeta aurreko urteko deialdian izandako akatsa (jaso gabeko kopurua) zuzentzeko.

(**) Hitzartua:11.992.785 pezeta

Galdera honi erantzuteko garaian, 11.992.785 pezeta hitzartu dira eskolaz kanpoko ingurugiro-heziketa jardueretarako laguntzen deialdiari erantzuteko. Irailaren 8ko 1.017/1997 Foru Agindua.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Errregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 1997ko irailaren 15ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## "Naturguneak babesteko hitzarmena" deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak "Naturguneak babesteko hitzarmena" deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egin duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 26an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko "Izquierda Unida-Ezker Batua" Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak galdera egin du "Naturguneak babesteko hitzarmena" deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz. Horra Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Zein den, irailaren 1eko datarekin, izen hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: Naturguneak babesteko Hitzarmena, 11550-0 lerro-zenbakia.

Kontusaila: Naturguneak babesteko eta ibaiak bereoneratzeko hitzarmena

Lerroa: 11550-0

1997-9-1eko egoera:

| | |
|---|---|
| Hasierako kreditua: | 80.000.000 pta. |
| Gehikuntza (transferentzia): | 25.000.000 pta. |
| Guztira: | 105.000.000 pta. |
| Kreditu baimendua: (*) | 94.339.316 pta. |
| Gainerakoa: | 10.660.684 pta. |
| Betetze-maila | %89,5 |

(*) Kreditu baimendua:

| | |
|---|---|
| Behatze-gastuak, Leurtzako urtegia (ANR-2) | 804.312 pta. |
| Turismo erabileretarako hitzarmena, Aralar mendiak | 13.968.776 pta. |
| Lizasorekiko hitzarmena, Orgi basoa kontserbatzeko(ANR-1) | 15.600.000 pta. |
| Irunberriko Udalarekiko hitzarmena, Irunberriko arroila eta Arbaiungo arroila kontserbatzeko | 5.490.000 pta. |
| Nabaskoizeko Udalarekiko hitzarmena Benasako arroila kontserbatzeko | 322.456 pta. |
| Erabilerak arautzeko hitzarmena, Iratiko basoan | 3.691.232 pta. |
| Zidakos ibaiaren arroa egokitzeko lanak | 54.462.540 pta. |

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Errregelamenduko 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 1997ko irailaren 15ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## 1997rako lan-eskaintza publikoari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak 1997rako lan-eskaintza publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 26a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

1997rako lan-eskaintza publikoari buruz Begoña Errazti Esnal, “EA-Askotariko” Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari andreak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak:

1.- Gure Komunitateko enplegu-eskaintza publikoa, 1997 urterakoa: eskainitako postuen guztizko kopurua.

Gaur arte, Nafarroako Gobernuak ez du 1997 urte honi dagokion enplegu-eskaintza publikorik argitaratu, ez osorik ez partzialik. Hala ere, Parlamentari andrearen galdera orain kudeatzen ari den 1996ko eskaintzari buruzkoa baldin bada, datuak honakoak dira:

1996rako enplegu-eskaintza publikoan sarturiko postu-kopurua: 513, honela banatuta:

-Administrazio Erroa: 317 postu (Foruzaingorako eta Suhiltzaileetarako barne sustapeneko 65 postu barne harturik).

– Irakasleak: 25 postu.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua: 171 postu.

2.- Horietatik zenbat euskaraz?

Kopuru osoa, arloka banaturik, hauxe da:

-Administrazio Erroa: 8 postu, (5 Administrazio Laguntzaile, Kazetari bat, Sukaldari bat eta Menpeko bat).

– Irakasleak: Hezkuntza eta Kultura Departamentuak determinatzeke.

– Osasunbidea- Nafarroako Osasun Zerbitzua: 6 postu (5 Mediku Orokor eta O.L.T.-E.D.U. bat).

3.- Zenbatetan baloratu da euskara? Guztizko baremoarekiko proportzioa.

Guztizko kopurua, arloka banatuta, hauxe da:

– Administrazio Erroa: 14 postu (Kontserbazio-Zentroko 2 buru, 8 Liburutegi-Arduradun eta 4 Mendi Azpizaindari). Euskara ezagutzeagatik ematen den puntuazioa hauxe da: 6 postutan, 1,5 puntu gehitzen zaizkie baremoko 10 puntuei (eremu euskaldunean), 3 postutan, 0,55 puntu (eremu mistoan) eta 0,25 5 plazatan (eremu ez euskaldunean).

– Irakasleak: Hezkuntza eta Kultura Departamentuak determinatzeke.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua: bat ere ez.

Aipatu behar da erantzun honetako datuak eskaintza guztiaren kudeaketa amaitu gabe dagoen une honetako egoerari buruzkoak direla; hau da, egin behar diren merezimendu-lehiaketarako edo hautapenerako deialdi guztiak ez dira oraindik egin, eta, horregatik, kopuru hori azkenean handitu daiteke.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko irailaren 24a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

---

## Lanbide-tailerretako ikasleei bekak emateari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Mª Isabel Arboniés Bemejo Foru Parlamentari andreak Lanbide-tailerretako ikasleei bekak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 27a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Lanbide-tailerretako ikasleei bekak emateari buruz Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak eginiko galderari erantzunez, honako hau agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

1.- Lanbide-tailerretako ikasleei bereziki zuzendutako bekak emateko kontusailik ez dago eta ez da inoiz izan.

2.- Aurrekoarekin bat etorriz, ez da inoiz egin ikasle horientzat beka-deialdi esklusiborik; dena

den, ikasle horiek beka-deialdi orokorraren baldintzei lotuta egongo lirateke beti.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko irailaren 19a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

# Elortz ibaian, Imarkoain eta Noain inguruan, agertu den kutsadurari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Elortz ibaian, Imarkoain eta Noain inguruan, agertu den kutsadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 27a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak hurrengo erantzuna ematen dio Nafarroako Demokraten Elkarguneko Parlamentari Taldeari atxikita dagoen Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Elortz ibaian, Imarkoain eta Noain inguruan, gertatu den arrainen heriotzari buruz egin duen galderari:

Nafarroako Gobernuak jakin al du Elortz ibaian arrain hilak azaldu direla?

Bai. Joan den ekainaren 26an Nafarroako Parlamentuko dagokion Batzordearen aurrean azaldu nuenez, joan den ekainaren 18an, arrain hilak ikus zitezkeen Elortz ibaian, Noaindik pasatzerakoan. Horrela geratu zen erasota Ingurugiro Zaingoaren txosten batean, inguru hartan ikuskapenak egin eta bertako nekazari eta auzoei galdetu ondoren. Lekukotasun horien arabera, joan den ekainaren 17an arrainak bizirik zeuden eta 18an agertu ziren lehenbiziko arrain hilak, adin guztietako barbo arruntak eta loinak, batez ere.

Ingurugiro Departamentuak arrain hauen heriotzaren zioak antzeman al ditu?

Bertan egindako ikuskapenen eta Ingurugiro Departamentuak eskuratu dituen datuen ondorioz atera daiteke litekeena dela aipatu gertaerak zerikusirik izatea Iruñerriko Mankomunitateak inguruan egiten ari diren lanekin. Kalitate-kontroleko zuzendariaren txosten batek aitortu du, konfirmatu gabe badago ere, Garraioaren Hiria urez hornitzeko hodien zati bat desinfektatzeko lanak izan litezkeela aipatu gertaeraren sorrera.

3. Dirudienez ibaiaren bizitzarako kaltegarriak diren gaiak isurtzen diren hodia dela-eta jardunen bat aurreikusi al du Gobernuak?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du inongo jarduketarik aurreikusi hodiei buruz.

Gertakariaren ondoreak, gainera, berehala desagertu ziren eta ukitu zituen arrainei baino ez zien eragin eta ez da hondar-eraginik gertatu.

Gertakari tamalgarri horri buruzko informazio gehiago ematearren, honekin batera bidaltzen dizut joan den ekainaren 26ko parlamentu-agerraldia.

Iruñean, 1997ko irailaren 23a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatu agerraldia 1997ko ekainaren 26ko 15. zenbakiko Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Batzordearen Bilkuran Egunkarian argitaratu zen).

# Agoncillo-ko hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegitik hurbil dagoen Nafarroako eskualderako Nafarroako Gobernuak hartu dituen neurriei eta hura Galilea-ra (Errioxa) lekualdatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Agoncillo-ko hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegitik hurbil dagoen Nafarroako eskualderako Nafarroako Gobernuak hartu dituen neurriei eta hura Galilea-ra (Errioxa) lekualdatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 27a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Martín Landa Marco, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak Agoncillo-ko (Errioxa) hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegiaren kokapenari buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Zer jarduketa burutzen ari den edo burutzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak hondakin toxiko eta arriskutsuen hondakindegiarentzat hautatu den kokalekutik -alegia, Galilea-ko dermiotik- hurbil bizi diren Nafarroako biztanleen interesak zaintzeko.

Nafarroako Gobernuak interes handia erakutsi izan du Errioxako Komunitateko Industri Hondakinetarako Segurtasun Biltegia eta Transferentzi Zentroarekin loturiko inguruabar guztiekiko. Horrexegatik informazioa jaso izan du biltegi horrekin loturiko arazo garrantzitsuenei buruz. Hori dela eta, aukera izan du beti herritarrentzako ingurugiro arriskuak neurtzeko.

2. Ea Nafarroako Gobernua aurkeztu zen hondakindegia Agoncillo-n kokatzeko aurreko proiketuan, eta zer jarduketa burutu zituen honen inguruan.

Errioxako Garapen Autonomiko, Administrazio Publiko eta Ingurugirorako Kontseilaritzarekin izandako lan bileretan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak alegazio bat aurkeztu zuen formalki, erakusketa publikorako aldian. Alegazio hori Ingurugiro Eraginari buruzko Deklarazioaren IV. eranskinean bildu zen 208. zenbakiarekin. Deklarazioa, bestalde, aldeko izaerarekin onetsi zen ekainaren 26ko Erabakiaren bidez eta Errioxako Aldizkari Ofizialaren 1997ko uztailaren 1eko 78. zenbakian argitaratu zen.

Alegazio horretan zenbait oharpen tekniko biltzen ziren, bai instalazioaren ustiategia eraikitzeari buruz, bai ingurugiro-babes egokia bermatzeko.

3. Zer-nolako neurri hartzeko prest dagoen Nafarroako Gobernua, horretarako unea iristen baldin bada, aipaturiko proiektuak eragin litzakeen ondorio negatiboek kalteturiko Nafarroako eskualdeko biztanleen interesak (ekonomikoak, nekazaritza arlokoak eta abar) zein osasuna zaintzeko.

Aipatu den Kontseilaritzaren arabera, abuztuaren 22an, Errioxako Gobernuak instalazioari hasieran eman zitzaion kokapena aldatzea erabaki zuen. Hasieran Agoncilloko udalerrian jartzea aurreikusi bazen, gero ondoko Galilea herrira aldatu zen. Bien arteko aldea 2 km.koa da.

Aldaketa, inplikatutako udalen oharpenen arabera, onerako da kokapena eta proiektua bera formalki onartu gabe zeudelako. Galilean aukeratu den lekuak, dirudienez, antzeko baldintzak ditu, hobeak ez badira, ikuspuntu geoteknikotik. Horrela eman dute aditzera bertan egindako laginketek.

Joan den irailaren 18an Ingurugiro eraginari buruzko ikerlanaren izapidaketa berriari ekin zitzaion, Ingurugiro Batzordearen erabakia Errioxako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Izapidaketa horretan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak proiektua aztertu eta, bidezko bada, egoki irizten duena alegatuko du, ingurugiroa, osasuna eta interes ekonomikoak ahal den guztian babesteari begira.

Edozein kasutan ere, eta ustiaketa fasean, halako batera ailegatzen bada, Foru Komunitatea zeharkatuko luketen hondakinei buruzko kontrol- eta segimendu-agirien gaineko fiskalizazio xehekatua eginen genuke.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko irailaren 23an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## “Vázquez de Mella” ikastetxe publikoan “A” eredua ezartzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Mª Isabel Arboniés Bemejo Foru Parlamentari andreak “Vázquez de Mella” ikastetxe publikoan “A” eredua ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 26a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

